

Galdera

Nola esan «*teclas contrapesadas*»? Gomendioak eman nahi dizkiet ikasleei teklatuak erosteko, eta funtsezkoa da teklek pisua izatea.

Erantzuna

'**kontrapisua duten tekla**' (gure iritzian, argiena eta ulerterrazena), '**tekla kontrapisudunak**'

1/ Ez dago termino normalizaturik terminologia-bankuetan eta ohiko hiztegietan. Baina begirada bat emanik beste alor batzuetan, bi joera nagusi ditugu.

a/ Hitz bat baino gehiagoko terminoa, perifrasiaren bidetik, '**kontrapisua duten tekla**'. Frantsesez ere, ildo beretik, *touches à contrepoids* edo *touches avec contrepoids* erabiltzen da. Gure iritzian, argia eta ulergarria.

b/ Hitz bakarreko terminoa 'tekla **kontrapisudunak**'. Antzera, ingelesez, *weighted keys*, eta gaztelaniaz, *teclas contrapesadas*. Orobat ulergarria.

Halaber, ingeniariaritz- eta eraikuntza- arloetan, 'kontrapisatu' hitza agertzen da inoiz. Aukeran, kalko gordinagoa eta, beharbada, iluntxoagoa.

2/ Hona hemen pianoei buruzko webgune batean irakurri dugun artikulua ([Teclas contrapesadas, semicontrapesadas o sin contrapeso...](#)). Argi azaltzen du zertan datzan tekla-moten arteko aldea, eta baliagarria izan liteke ikasleei azaltzeko.:

Piano digitalek **kontrapisuak** erabiltzen dituzte teklen pisua imitatzeko, hau da, pisu txikiak jartzen dituzte teklaen muturrean. Zertarako? Kola-piano natural baten mailuen pisua imitatzeko. Horrexegatik deitzen zaie **kontrapisudunak** (edo **kontrapisua dutenak**) instrumentu horiei. Badira oso ondo eginda daudenak, baina beste batzuk, deitura hori izan arren, kaskar samarrak dira. Jakina, prezioan sumatu daiteke **kontrapisuaren** kalitatea...

Teklatu **erdikontrapisudunak** erdibidean daude, **kontrapisua** dutenen eta ezer ez dutenen artean. Nire ustez, ez dute konbentzitzen **kontrapisua duten** teklatuekin jotzen ohituta dagoen pianista, ez eta **kontrapisurik** gabe jotzen ohituta dagoena ere.

*Los pianos digitales imitan el peso de las teclas con **contrapesos**, es decir pequeños pesos en el extremo de la tecla. Esto se hace para imitar el peso de un martillo de un piano de cola natural. A estos instrumentos se les llama **contrapesados** por eso. Los hay muy bien conseguidos y otros que se llaman así pero que tampoco es gran cosa. Evidentemente en el precio se puede intuir la calidad del **contrapeso**...*

*Los teclados **semicontrapesados** son aquellos que están entre los que tienen **contrapeso** y los que no tienen nada. En mi opinión, no convencen al pianista que está acostumbrado al **contrapeso** ni al teclista que está acostumbrado a tocar sin **contrapeso**.*

* Euskarazko bertsioa gurea da.

3/ Hona '**kontrapisudun**' terminoaren adibide batzuk (esan bezala, beste alor batzuetatik jasotakoak):

- *Laneki* Lanbide heziketako hiztegian:

«**Ertzak babesteko sistema** kontrapisudunak»

<http://hiztegia.jakinbai.eus/term/es/sistema%20de%20protecci%C3%B3n%20de%20borde>

- Gasteizko udalean:

«Eszena-makineria. Zamak goratzeko ekipoak: eskuzko makilak, kontrapisudunak...»

https://www.araba.eus/botha/Boletines/2020/123/2020_123_03189_E.pdf

4/ Inguruko hizkuntzetako adibideak (gorago azaldutakoak):

- en *weighted keys* vs *unweighted keys* – 'con peso', 'lastrado', < *weight* peso

<https://www.musiah.com/articles/equipment-tips/weighted-keys-vs-unweighted-keyboard-buying-guide.html>

- fr *touches à contrepoids* – 'con contrapeso'

<https://www.tempo-melodie.com/les-10-meilleurs-pianos-numeriques-avec-88-contrepoids-sur-touches/touches-avec-contrepoids>

«Le Phoenix est équipé d'un clavier toucher Ivoire lourd avec contrepoids sur touches qui permet de retrouver les sensations tactiles d'un piano acoustique.» – Phoenixek teklatu astuna du, bolizko ukia duena, tekletan **kontrapisuak dituena**, eta horrek piano akustikoaren ukimen-sentsazioetara hurbiltzeko bidea ematen digu.

<https://pianophoenix.com/le-toucher/>